

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**49. zenbakia****Data 2002-03-13****4769 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA**

ALBIZTURGO UDALA

Txakurrak erabili eta zaintzeko ordenantza. Behin betiko onespena.**ALBIZTURGO UDALA***Iragarkia*

2002eko urtarrilaren 16an 10. zenbakia duen aldizkariaren Txakurrak erabili eta zaintzeko Udal Ordenantza argitara eman zen.

Apirilaren 18ko 781/1986 E.D. legegileko 49.b atalak dioenaren arabera 30 laneguneko epean jendaurrean egon eta erreklamaziorik tarteratu ez denez, behin betikotzat onartuta geratzen da, testu osoa ondoren argitaratuaz.

« TXAKURRAK ERABILI ETA ZAINZKEKO UDAL ORDENANTZA

I. IDAZPURUA

XEDEA ETA EZARPEN EREMUA

1. artikulua.

Txakurrak, erabiltzeko, eta zaintzeko arauak ezartzea da ordenantza honen xedea.

Azkenik, arau haustea eta zehapenak sailkatzen dira eta zehapena gauzatzeko jardunbidea ezartzen du.

2. artikulua.

Ordenantza honek **Albizturko** udalerrri osoa arautzen du.

3. artikulua.

Honako gai hauek ordenantza honetaz kanpo gelditzen dira, horietarako arau bereziak daude eta:

- a) Ehiza.
- b) Arrantza.
- c) Basabereak beren ingurugiroan zaindu eta babestea.
- d) Zezenak eta tradiziozko zezen jaiak.

II. IDAZPURUA

TXAKURRAK

4. artikulua.

Establezimendu publikoetan ezin da barrenean txakurrik sartu.

5. artikulua.

Udal zerbitzu teknikoek etxabereek sortutako eragozpenen berri emango diote Udalari, beren kasa zein norbaitek salaketa bat jarrita.

6. artikulua.

Txakurra bazterrera ezingo da utzi. Txakurra nahi ez duenak jabe bat bilatu beharko dio, edo bestela animaliak babesteko elkarte bati eman.

7. artikulua.

1.Itsu bati laguntzen dion txakurra jendearentzako toki, ostatu, denda, lokal eta garraiobideetan sartu ahal izango da.

2.Agintaritzaren mandatari batek edo lokalaren arduradunak eskatzen badio,itsuak txakurra gida-txakurra dela eta osasun baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko du.

3.Itsu txakurra gaixo, erasokor, zikin edo arriskutsua delako susmoa badago, ezin izango da lehenengo zenbakian adierazitako lekuetan sartu.

8. artikulua.

Hozka egiteagatik, txakurraren jabeak derrigorrezko betebeharra izango du, txakurra al baitariarengana eramatea eta gaixotasunik ez duela egiaztatzea. Aldi berean, txakurraren jabeak, hozka jasan duena medikuarengana eraman beharko du sortutako kalteak hala eskatzen badu.

9. artikulua.

1.Herri bideetan eta jendearentzako gainontzeko ibiltokietan, txakurrak soka eta lepoko batez joango dira.

Bere izaera eta itxuraren arabera arriskutsuak gerta litezkeen txakurrak muturrekoarekin ibiliko dira.

2.Inoiz inori hozka egin dioten txakurrek eta, bere izaera eta ezaugarriengatik, jabearen ustetan arriskutsuak direnek muturrekoa eraman beharko dute.

10. artikulua.

Txakurren hondakinak jolastoki, lorategi eta bide publikoetan isuri ezinezkoak dira. Norberak jaso eta modu egokienean, desagertarazi beharko ditu.

11. artikulua.

Aurreko artikuluan jasotakoa bete ezean, animalia daramanak edo, bere ordeaz, jabeak izango du erantzukizuna.

III. IDAZPURUA

ZIGOR ARAUAK

1. ATALBURUA. ARAU HAUSTEAK

12. artikulua.

Ordenantza honen ondorioetarako, arau haustek arinak, larriak eta oso larriak izango dira, Eusko

Legebiltzarrak urriaren 29ko 6/1993 Legeko sailkapenarekin bat; haustearen larritasuna neurtzeko hauek izango dira aintzat hartu beharrekoak: Pertsonen osasun eta segurtasunerako arriskua, axolaga-bekeria, kaltearen larria eta behin baino gehiagotan egin izana.

13. artikulua.

Hauek dira arau hauste arinak.

a) 4, 6, 8, eta 10. artikuluetan jasotakoak.

14. artikulua.

Hona hemen arau hauste larriak:

9. artikuluan jasotakoa.

15. artikulua.

Hona hemen arau hauste oso larriak:

4, 6, 8, 9 eta 10 artikuluek bigarren aldiz haustea.

Ordenantza honetan arautzen diren gaietan egindako hutsek honako zehapen hauek izango dituzte:

2. ATALBURUA. ZEHAPENAK

16. artikulua.

1.Eusko Legebiltzarrak urriaren 29an emandako 6/1993 Legeko sailkapenarekin bat etorriz, ordenantza honetan egindako hutsengatik 30,05 €ik 15.025,30 €arteko isuna ordaindu beharko da:

a) Arau hauste arinak, 30,05 €ik 300,51 €arte.

b) Arau hauste larriak, 300,51 €ik 1.502,53 €arte.

c) Oso arau hauste larriak, 1.502,53 €ik 15.025,30 €arte.

2.Ordenantza honetako zehapenen zenbatekoak urtero aldatuko dira, berez eta besterik gabe, kontsumorako prezioen indizearen arabera, aurreko urteko zehapenen zenbatekoak oinarri hartuta.

3. ATALBURUA. ZEHAPEN JARDUNBIDEA

17. artikulua.

Zehapen jardunbideari dagokionez, Eusko Legebiltzarrak 1993ko urriaren 29an emandako 6/1993 Legeak xedatutakoa beteko du Udalak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1.Udal Sanitateak ordenantza honetan xedatutakoari buruzko aholkua eskatu ahal izango die profesionalen erakundeei zein animaliak babesteko elkarteei.

2.Ordenantza honetan jasotzen ez diren kasuetarako, Eusko Legebiltzarrak 1993ko urriaren 29an emandako 6/1993 Legeak, Animaliak Babesteari buruzkoak, xedatutakoari jarraituko zaio.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza honek Udaltzak behin-betiko onspena emateko hartutako erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu eta biharamunean hartuko du indarra.

ORDENANTZAREN OINARRI DIREN LEGE-ARAUAK

a) Apirilaren 24ko 1.119/75 Dekretua, zoologi gune, zaldiketa egiteko establezimendu eta animaliak sustatu eta zaintzeko zentroen baimenei eta erregistroei buruzkoa. 128. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 1975-05-29koa.

b) 1976ko ekainaren 14ko Agindua, gizakiarekin bizi diren txakur eta katuentzako osasun eta garbitasun arauak ematen dituena.

168. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 1976-07-14koa.

c) Nekazaritza Ministerioak 1980-07-28an emandako Agindua, zoologi gunea, zaldiketa egiteko establezimendu eta animaliak sustatu eta zaintzeko zentroen baimenei eta erregistroei buruzkoa. 219. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 1980-09-11koa.

d) Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Ihardunbidearen Oinarriak arautzen dituena.»

Albiztur, 2002ko martxoaren 4a.—Juan Ugartemendia Jauregi, Alkatea.

(31) (2550)